


Euskal AEko ingurumen-ekonomiaren Balio Erantsi Gordina % 10,5 hazi zen 2023an eta % 53,7, berriz, 2015az geroztik

Ingurumen-ekonomiak 27.778 enplegu sortu zituen 2023an, 2015ean baino % 25,3 gehiago eta 2022an baino % 4,3 gehiago; hala, enplegu osoaren % 2,86 izan zen

Euskal AEko ingurumen-ekonomiak 2.305 milioi euroko **Balio Erantsi Gordina** (BEGd) sortu zuen 2023an, hau da, ekonomiaren Barne Produktu Gordinaren (BPG) % 2,47, Eustatek landutako datuen arabera. 2022. urtearekin alderatuta, urte arteko ingurumeneko BEGd-a % 10,5 hazi zen, aldi horretako ekonomia osoaren BPGren hazkundera (% 7,5) baino handiagoa. 2015 eta 2023 artean, ingurumeneko BEGd % 53,7 hazi zen, eta EAEko ekonomia osoaren BPG, berriz, % 34,9.

Ingurumen Ondasun eta Zerbitzuen Kontua (IOZK) Eurostaten metodologiari jarraituz egiten den ingurumen-kontuen sistemaren parte da. Kontu horiek aukera ematen dute ekonomia- eta ingurumen-alderdiak Kontabilitate Sistema Nazionalarekin (SNC) koherentziaz integratzeko. Ingurumen-ondasunen eta -zerbitzuen azpisektorea (ingurumen-ekonomia) honako hauek osatzen dute: **ingurumena babesteko** ondasunak eta zerbitzuak ekoizten dituen ekonomiak, eta ingurumenaren gaineko presioak murrizteko edo ezabatze baliabide naturalak kudeatzeko jarduerak.

Euskal AEko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, jarduera ekonomikoen arabera. 2023



Ingurumeneko BEGd-aren sektore ekonomikoen arabera, 2023an Zerbitzuen sektorearen ekarpena nabarmendu zen (% 26,9), ondoren Eraikuntza (% 24,6), Ateratze- eta Manufaktura-industriak (% 22,8), Ur hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa (% 15,9) agertu ziren, eta, azkenik, Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza (% 5,3) eta Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura (% 4,5).

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen Balio Erantsi Gordina, jarduera-taldean arabera . 2015-2023

	BEGa (milaka euro)			Ingurumeneko BEGaren gaineko %			Urteko aldakuntza-tasa (%)	
	2015	2022	2023	2015	2022	2023	2023/2015	2023/2022
Ingurumeneko BEG GUZTIRA	1.499.933	2.085.929	2.305.072	100,0	100,0	100,0	53,7	10,5
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	65.731	122.326	122.606	4,4	5,9	5,3	86,5	0,2
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	206.448	427.183	525.142	13,8	20,5	22,8	154,4	22,9
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	96.580	66.131	103.611	6,4	3,2	4,5	7,3	56,7
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	305.488	382.461	367.193	20,4	18,3	15,9	20,2	-4,0
F: Eraikuntza	356.396	497.509	566.541	23,8	23,9	24,6	59,0	13,9
G-U: Zerbitzu-sektorea	469.290	590.319	619.979	31,2	28,2	26,9	32,1	5,0
BGP m/p	69.111.800	86.714.411	93.242.571				34,9	7,5

Oinarria 2022

Data 2025eko Azaroaren 28a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Ingurumeneko BEGd-aren barne-osaerak 2015 eta 2023 artean izan zuen bilakaerari dagokionez, Ateratze- eta manufaktura-industria nabarmendu behar da —epe horretan % 154,4ko igoera izan zuen—, 2015ean ingurumeneko BEGd osoaren % 13,8 izatetik 2023an % 22,8 izatera igaro baitzen. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzak eta Eraikuntzak ere hobera egin zuten ingurumeneko BEGd osoan 2015etik 2023ra; gainerako sektoreek, berriz, pisua galdu zuten.

Sektore ekonomikoen arabera eta bakoitzaren garrantzia kontuan hartuta, Zerbitzuen **ingurumen-enplegua** 2023an ingurumen-enplegu osoaren % 31,8 izan zen; haren atzetik, Eraikuntza (% 26,6), Ateratze- eta manufaktura-industria (% 18,6) eta Ur-hornidura, saneamendua eta hondakinen kudeaketa (% 17,3) agertzen ziren. Era berean, ingurumen-enplegu osoari ekarpen txikiena egin zioten sektoreak Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza eta Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura izan ziren, % 5,2 eta % 0,5, hurrenez hurren.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektoreko lanaldi osoaren baliokide diren lanpostuak, jarduera-taldean arabera. 2015-2023

	Ingurumeneko (DOB) enplegua			Ingurumen-enpleguaren gaineko %			Urteko aldakuntza-tasa (%)	
	2015	2022	2023	2015	2022	2023	2023/2015	2023/2022
Ingurumeneko DOB, guztira	22.161	26.643	27.778	100,0	100,0	100,0	25,3	4,3
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	735	1.388	1.444	3,3	5,2	5,2	96,5	4,0
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	2.519	4.562	5.155	11,4	17,1	18,6	104,6	13,0
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	187	110	150	0,8	0,4	0,5	-19,8	36,4
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	4.598	4.947	4.800	20,8	18,6	17,3	4,4	-3,0
F: Eraikuntza	5.698	6.837	7.393	25,7	25,7	26,6	29,7	8,1
G-U: Zerbitzu-sektorea	8.424	8.799	8.836	38,0	33,0	31,8	4,9	0,4
Ekonomia osoaren lanaldi osoko baliokideak	886.487	952.509	970.243				9,4	1,9

Oinarria 2022

Data 2025eko Azaroaren 28a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak, Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Ingurumeneko enpleguaren barne-osaerak 2015 eta 2023 artean izan zuen bilakaerari dagokionez, *Ateratze- eta manufaktura-industria* nabarmendu behar da —epe horretan % 104,6ko igoera izan zuen—, 2015ean ingurumen-enplegu osoaren % 11,4 izatetik 2023an % 18,6 izatera igaro baitzen. *Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantzak* eta *Eraikuntzak* ere hobera egin zuten ingurumen-enpleguaren osaera osoan; gainerako sektoreek, berriz, pisua galdu zuten. *Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta airearen hornidura* sektorean bakarrik egin zuen behera ingurumen-enpleguak 2015 eta 2023 artean.

Ingurumen-zifrak ekonomia osoarekin erlazionatzen dituzten **adierazle nagusiei** erreparatuz, ingurumeneko BEGd-a 2023ko BPGaren % 2,47 izan zen; ingurumen-enplegua, berriz —lanaldi osoko enplegu baliokideetan neurtua—, 2023ko lanaldi osoko enplegu baliokideen % 2,86 izan zen. 2015ean, ingurumeneko BEGd-a BPGaren % 2,17 zen, eta lanaldi osoko ingurumen-enplegu baliokidea, berriz, lanaldi osoko guztizko enplegu baliokidearen % 2,50.

Euskal AEko ingurumen ondasun eta zerbitzuen adierazleak ingurumen helburuaren arabera. 2015-2023

	Ingurumeneko BEGd, BPGaren % gain			Ingurumeneko enplegua (lanaldi osoko baliokidea), guztizko enpleguan (lanaldi osoko baliokidea)		
	2015	2022	2023	2015	2022	2023
Ingurumena, guztira	2.17	2.41	2.47	2.50	2.80	2.86
A: Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	0,10	0,14	0,13	0,08	0,15	0,15
B+C: Ateratze eta manufaktura-industriak	0,29	0,49	0,56	0,29	0,48	0,53
D: Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren hornidura	0,14	0,08	0,11	0,02	0,01	0,02
E: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	0,44	0,44	0,39	0,52	0,52	0,49
F: Eraikuntza	0,52	0,58	0,61	0,64	0,72	0,76
G-U: Zerbitzu-sektorea	0,68	0,68	0,67	0,95	0,92	0,91


Oinarria 2022

Data 2025eko Azaroaren 28a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak, Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Europako gainerako herrialdeekin alderatzeko, Eurostatek argitaratutako 2022ko azken datuak aztertu dira. Euskal AEko BPGren gaineko ingurumeneko BEGd-aren adierazlea % 2,41 da, Ehuneko hori Frantziakoa (% 2,37) edo Poloniakoa (% 1,98) baino handiagoa da, eta Alemaniakoa (% 2,65), Bulgariakoa (% 2,65) edo Espainiakoa (% 2,97) baino txikiagoa. Datu horien arabera, Euskal AE EB-27ko batez bestekoaren azpitik dago (% 3,33); arlo horretan Finlandia (% 6,19), Austria (% 4,82) edo Estonia (% 4,74) izan ziren ingurumeneko BEGd-ak ekonomia osoari egiten dion ekarpenaren buru.

Ingurumen BEG BPGd-ren gainean



Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Europako araudiari jarraiki, Ingurumen Ondasun eta Zerbitzuen kontua Ingurumen Helburuen araberrako Sailkapen (IHS) berriarekin egiten da. "Ingurumen-helburua" ingurumena babestearekin lotuta lortu nahi den helburu nagusiaren inguruan antolatzen da, eta ingurumen-helburu batzuetarako dibisioan (ingurumen-arloa) eta beste helburu batzuetarako talde xehatuagoan hedatzen da.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen Balio Erantsi Gordina, igurumen-helburuen arabera. 2015-2023

	BEGa (milaka euro)			Ingurumeneko BEGaren gaineko %			Urteko aldakuntza-tasa (%)	
	2015	2022	2023	2015	2022	2023	2023/2015	2023/2022
IHS GUZTIRA	1.499.933	2.085.929	2.305.072	100,0	100,0	100,0	53,7	10,5
IHS 01 - Airea eta klima	87.234	173.780	180.253	5,8	8,3	7,8	106,6	3,7
IHS 0201 - Iturri berriztagarrietatik sortutako energia	54.825	74.101	93.312	3,7	3,6	4,0	70,2	25,9
IHS 0202 - Energia aurrezte eta kudeatzea	413.057	581.275	702.131	27,5	27,9	30,5	70,0	20,8
IHS 0301 - Hondakin-urak kudeatzea	59.238	71.601	66.865	3,9	3,4	3,0	12,9	-6,6
IHS 0302 - Ura aurrezte eta ballabide hidrokin naturalak kudeatzea	10.175	13.016	14.936	0,7	0,6	0,6	46,8	14,8
IHS 0401 - Hondakinak kudeatzea	237.325	294.663	279.229	15,8	14,1	12,2	17,7	-5,2
IHS 0402 - Materialak berreskuratzea eta aurrezte	140.611	214.261	230.958	9,4	10,3	10,0	64,3	7,8
IHS 0501 - Lurzoruak, azalerako urak eta azpiko urak babestea	86.262	85.848	97.395	5,7	4,1	4,2	12,9	13,5
IHS 0502 - Biodibertsitatea eta paisaia babestea	9.881	14.331	15.910	0,7	0,7	0,7	61,0	11,0
IHS 0503 - Baso-baliabideak kudeatzea'	74.757	111.291	106.677	5,0	5,3	4,6	42,7	-4,1
IHS 06 - Zarata eta erradiazioa	86.426	138.972	184.438	5,8	6,7	8,0	113,4	32,7
IHS 07 - Ikerketa eta garapena	81.177	133.439	153.140	5,4	6,4	6,6	88,6	14,8
IHS 08 - Ingurumen-helburu zeharkakoak eta beste ingurumen-helburu batzuk'	158.965	179.351	179.828	10,6	8,6	7,8	13,1	0,3
BPGa merkatu-preziotan	69.111.800	86.714.411	93.242.571				34,9	7,5


2022 oinarria

Data 2025eko Azaroaren 28a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

2023an, *Energia aurrezte eta kudeatzea* izan zen ingurumen-helburu nagusia (guztizkoaren % 30,5), ingurumeneko BEGd-an pisu handiagoa izan baitzuen. Haren atzetik, *Hondakinak kudeatzea* (% 12,2) eta *Materialak berreskuratzea eta aurrezte* (% 10,0) zeuden. Ingurumeneko BEGd-aren osaeran ekarpen garrantzitsua (% 5,0etik gorakoa) egin zuten beste ingurumen-helburu batzuk honako hauek izan ziren: *Zarataren eta erradiazioen* aurkako babesa (ingurumeneko BEGd osoaren % 8,0); *Airea eta klimari* eta *Zeharkako beste ingurumen-helburu batzuei* eragiten dieten emisioen murrizketa eta kontrola; bi xede horiek ingurumeneko BEGd-aren % 7,8 dira, eta *Ingurumeneko I+G*, ingurumeneko BEGd osoaren % 6,6 da 2023an.

Euskal AEko ingurumeneko Balio Erantsi Gordina, ingurumen-helburuen arabera. 2023



Oinarri-urtea 2022

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak. Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

2015etik 2023ra, hauek izan ziren ingurumeneko BEGd-aren osaeran parte-hartzea gehien handitu zuten ingurumen-helburuak: *Zarata eta erradiazioak* (% 113,4ko igoera), *Airea eta klima* (% 106,6ko igoera) eta *Ingurumeneko I+Ga* (% 88,6ko igoera). *Iturri berriztagarrietatik sortutako energia*, *Energia aurrezte eta kudeatzea*, *Materialak berreskuratzea eta aurrezte* eta *Dibertsitatea eta paisaia babestea* ere urte horietan ekonomia osoaren ingurumeneko BEGd-ak izan zuen hazkundearen (% 53,7) gainerik egon ziren.

Euskal AEko ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen sektorearen adierazleak, ingurumen-helburuaren arabera. 2015-2023

	Ingurumeneko BEGd. BPGaren % gain			Ingurumeneko enplegua (lanaldi osoko baliokidea), guztizko enpleguan (lanaldi osoko baliokidea)		
	2015	2022	2023	2015	2022	2023
IHS GUZTIRA	2,17	2,41	2,47	2,50	2,80	2,86
IHS 01 ? Airea eta klima	0,13	0,20	0,19	0,13	0,19	0,19
IHS 0201 - Iturri berriztagarrietatik sortutako energia	0,08	0,09	0,10	0,04	0,08	0,08
IHS 0202 - Energia aurrezte eta kudeatzea	0,60	0,67	0,75	0,62	0,75	0,81
IHS 0301 - Hondakin-urak kudeatzea	0,09	0,08	0,07	0,10	0,10	0,09
IHS 0302 - Ura aurrezte eta baliabide hidrokin naturalak kudeatzea	0,01	0,02	0,02	0,02	0,02	0,02
IHS 0401 - Hondakinak kudeatzea	0,34	0,34	0,30	0,40	0,40	0,38
IHS 0402 - Materialak berreskuratzea eta aurrezte	0,20	0,24	0,25	0,22	0,26	0,27
IHS 0501 - Lurzoruak, azalerako urak eta azpiko urak babestea	0,12	0,10	0,11	0,19	0,17	0,18
IHS 0502 - Biodibertsitatea eta paisaia babestea	0,01	0,02	0,02	0,02	0,03	0,02
IHS 0503 - Baso-baliabideak kudeatzea ¹	0,11	0,13	0,11	0,09	0,10	0,09
IHS 06 - Zarata eta erradiazioa	0,13	0,16	0,20	0,12	0,14	0,18
IHS 07 - Ikerketa eta garapena	0	0	0,2	0,18	0,23	0,24
IHS 08 - Ingurumen-helburu zeharkakoak eta beste ingurumen-helburu batzuk ¹	0,23	0,21	0,19	0,37	0,33	0,31

Oinarria 2022

Data 2025eko Azaroaren 28a

Iturria: Eustat. Ingurumen-kontuak, Ingurumen-ondasun eta zerbitzuen kontua

Energiaren aurrezpena eta kudeaketa izan zen, bai 2015ean (ehuneko 0,60 puntu), bai 2023an (ehuneko 0,75 puntu), aise, BPGrekiko ingurumeneko BEGd osoari ekarpen handiena egin zion ingurumen-helburua, % 2,17 eta % 2,47, hurrenez hurren, 2015ean eta 2023an. Era berean, *Energiaren aurrezpena eta kudeaketan* lanaldi osoko ingurumen-enplegu baliokidea izan zen, bai 2015ean (ehuneko 0,62 puntu), bai 2023an (ehuneko 0,81 puntu), guztizko lanaldi osoko ingurumen-enplegu baliokideari ekarpen handiena egin zion ingurumen-xedea, % 2,50 eta % 2,86, hurrenez hurren, 2015ean eta 2023an.

Oharra:

Gaur 2015etik 2023ra argitaratutako datuek datu horiek eguneratu dituzte Kontu Ekonomikoen zifra berriekin. Zifra horiek 2022ko Oinarriko zenbatespen berriak zabaldu dituzte, balio erantsiari eta lanaldi osoko enplegu baliokideei buruzko informazio eguneratua barne.

Gainera, Ingurumeneko Ondasun eta Zerbitzuen Kontuak berak —Eurostatek emandako gomendioen eta Europako Batzordeak 2015etik egindako arau-berrikuspenen, 2015/2174 (EB) Erregelamenduaren, 2024/1769 (EB) Erregelamenduaren eta 2025/1131 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren arabera. Horiek guztiek Europako Ingurumeneko Kontu Ekonomikoei buruzko 691/2011 (EB) Erregelamendua aldatzen dute, Ingurumeneko Ondasun eta Zerbitzuen Sektorearen Kontua arautzen duena— Ingurumen Helburuen arabera Sailkapen (IHS) berri bat sartu du, datuak biltzeko eta kontu hori egiteko eta zabaltzeko, besteak beste.

Ingurumen Helburuen arabera Sailkapenak (IHS) "ingurumen-helburua" irizpidea erabiltzen du ingurumen-jarduera ekonomikoak, ingurumen-produktuak (ondasunak edo zerbitzuak) eta ingurumen-gastuak sailkatzeko, ingurumena babesteari dagokionez lortu nahi duten helburu nagusiaren arabera.

Aurreko guztiak berrikuspena egitea —bai informazio-iturriena, bai zenbatespen-metodoena— ekarri du, eta horrek zenbatespenak hobetzea eragin du; ondorioz, horrek guztiak eragin berezia izan du sektore garrantzitsuetan, hala nola Energian, Motorraren industrian eta honen osagarriak diren industrietan, Materialen berreskurapenean, I+Gn eta Administrazio Publikoan. Era berean, informazioa IHSren sailkapen berrian ezarritako irizpideen arabera zabaltzeak informazio-behar politikoak, erabiltzaile potentzialen informazio-beharak eta ingurumen- eta klima-erabileren beharrak asetzen ditu.

Lehenengo fasean, 2022 eta 2023rako behin betiko datuen zenbatespena egin zen, metodologia- eta hedapen-irizpide berrien arabera. Bigarren fasean, 2015-2021 serieko datuak berrikusi ziren (hauek ere irizpide berri horien arabera).

Metodologia-alaketek eta 2022rako oinarri-alaketarekin lotutakoek datu-serie homogeneo bat sortu dute Ingurumen-ondasun eta -zerbitzuen kontuko 2015-2023 serierako. Metodologia-hobekuntzek eta oinarri-alaketak, halaber, aurretik 2021erako eta 2022rako argitaratutako datuen beheranzko zuzenketa ekarri dute (aurrerapena) produkzioaren, balio erantsiaren eta enpleguaren mailetan.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz. Prentsa

Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62